KONTRATU HONETARAKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA:

PASAIAKO UDAL HORNIDURAKO PLAN INTEGRALA IDAZTEA

EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSAK FINANTZATUTAKO BERRONERATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN.

AURKIBIDEA

AURREKARIAK 3
1. SARRERA 4
2. XEDEA 4
3. PLANAREN IRISMENA 5
1. *Aplikazio eremua* 5
2. *Metodologia* 5
3. *Informazio iturriak* 5
4. *Sarearen diagnostikoa* 5
5. *Sarearen funtzionamenduaren azterketa* 5
6. *Ustiapenaren karakterizazioa* 6
7. *Kudeaketa adierazleen kalkulua* 6
8. *Indizeen azterketa* 7
9. *Helburuak eta estrategiak* 7
10. *Hobetzeko proposamenak* 7
11. *Inbertsio plana* 7
12. *Monitorizazioa eta jarraipena* 7
4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK 7
5. ETIKETA BERDEA ETA ETIKETA DIGITALA 8
6. INGURUMENARI KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO PRINTZIPIOA (DNSH) 8
7. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARRAK 9
8. HIZKUNTZA-BETEBEHARRAK 9

AURREKARIAK

Ura bizitzeko eta planetako ekosistemak mantentzeko oinarrizko eta funtsezko baliabideetako bat da.

Testuinguru horretan, uraren garrantzi estrategikoaz jabetuta, eta klima-aldaketaren ondorio kaltegarriei eman beharreko erantzuna indartzeko premiaren aurrean, Uraren zikloa digitalizatzeko Ekonomia Berreskuratu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoa (EBEPE) sortu zen. EBEPE horrek sektorearen ahalmen ekonomikoa optimizatzen duten eta sisteman detektatutako eraginkortasunik ezak amaitzen dituzten neurri eraldatzaile eta bideratzaileen multzo bat barne hartzen du. Horietako asko digitalizazioaren bidez ezabatuko dira.

Hori horrela, irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduaren bidez (2022ko irailaren 30eko BOE), honako hauek onartu ziren: uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko lehia bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak, eta uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuen lehiarako dirulaguntzen lehen deialdia (2022) (EBEPE uraren zikloaren digitalizazioa), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2023ko azaroaren 15ean, dirulaguntzak emateko behin betiko ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez erabaki baitzen DIGURBE proiektua gauzatzeko laguntza ematea Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. elkarteari eta Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Usurbil, Pasaia, Errenteria eta Urnietako udalei.

Pasaiako Udalak, DIGURBE proiektu horren parte izanik, Pasaiako ur-zikloan zehar uraren erabileren ezagutza hobetu nahi du, ur-baliabideen kudeaketa integratua finkatuz eta uraren erabileran efizientzia eta eraginkortasuna hobetuz.

Alde horretatik, baldintza teknikoen orri hau DIGURBE proiektuaren barruan jasotako ekintza batean oinarritzen da; zehazki, A2-A1-01 Pasaiako Udalaren Hornikuntza Plan Integrala idazteko jardueran, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasunak finantzatuta - NextGenerationEU.

1. SARRERA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak udalerriari esleitzen dizkion eskumenen artean dago edateko uraren hornidura.

Pasaiaren kasuan, udalerriaren idiosinkrasia dela eta, hornidura hori badiaren inguruan banatutako lau biltegiren bidez egiten da: bi Donibanen (Donibane eta Arrokaundieta), bat Antxon (Esnabide) eta beste bat San Pedro-Trintxerpen (Kanpitxo).

Hori horrela, lau sare independente daude, eta, gaur egun, eguneko batez besteko kontsumoa 2.700 m^3/egun inguru da.

Garrantzitsua da adieraztea Kanpitxoko biltegia Añarbeko urez hornitzen bada ere (goi-sarea), beste hirurak Udalaren hornidura-sistemetatik hornitzen direla: Jaizkibel eta Arrokaundieta.

Lehen aipatutako lau deposituek hornitzen duten udal-sarea zabala da, eta hainbat material eta antzinatasuneko hodiek osatzen dute. Horrek guztiak zaildu egiten du intzidentziak mugatzea edo aurkitzea. Hori horrela, ihesak ez badira ikusten, gehienetan oharkabean pasatzen dira.

Izan ere, deposituen azken urteko irteera-bolumenari buruzko datuak aztertuz gero, ur-galerak ia % 30 izan direla kalkulatzen da. Sarearen errendimendua, beraz, nahi baino askoz txikiagoa da une hauetan.

Aurrekoaz gain, garrantzitsua da ur-horniduraren bermea handitzea ahalbidetuko duten alternatibak izatea.

Ondorioz, komenigarria da hornidura-sare osoaren funtzionamendua optimizatzea ahalbidetuko duen plan bat izatea, kalteberatasun-puntuak detektatuz eta hartu beharreko neurri zehatzak jasoko dituen ekintza-plan bat definituz.

2. XEDEA

Kontratuaren xedea da Pasaiako Udalaren Hornidura Plan Integrala (aurrerantzean, HOPI) idaztea, hornidura-sarearen kudeaketa eta ustiapena optimizatzeko.

Helburuen eta jarduera-adierazleen arabera egiten da HOPIa, eta hornidura-zerbitzuaren ezaugarriak zehazten ditu, zerbitzuaren zenbait ikuspuntutatik; hau da, ikuspuntu teknikotik, ekonomikotik, kualitatibotik (uraren kalitatea) eta ingurumenekotik.

Era berean, Planak aukera emango du sistema hobetzeko puntuak identifikatzeko, azpiegitura berrietan egin daitezkeen inbertsioak eta beharrezkoak diren berritze- edo birgaitze-inbertsioak aztertuz. Ildo horretan, aurrekontu-beharrak ezarri beharko dira, proposatutako helburuak epe jakin batean lortu ahal izateko.

Era berean, HOPIak lotutako araudiaren ezarpena bultzatzen lagunduko du, bai jabari publiko hidraulikoaren kudeaketan eta administrazioan gobernantza hobetzeari dagokionez, bai 3/2023 Errege Dekretuari dagokionez (3/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, kontsumoko uraren kalitatearen, kontrolaren eta horniduraren inguruko irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituena; aurrerantzean, 3/2023 Errege Dekretua), bilketaren titularrak osasun-agintaritzari aurkeztu beharreko informazioari eta egiturazko ihesen ebaluazio xehatua betetzeari dagokionez, aipatutako 3/2023 Errege Dekretuaren X. eranskinean jasotakoaren arabera.

3. PLANAREN IRISMENA

Orientazio gisa, HOPIak gutxienez kontuan izan behar dituen alderdiak ezartzen dira:

1. Aplikazio eremua

HOPIaren irismena eta aplikazio-eremua definituko dira, eta haren denbora-horizontea ezarriko da, epe laburra, ertaina eta luzea identifikatuz.

2. Metodologia

Plana garatzeko aplikatuko den metodologia deskribatuko da, eta aktiboen kudeaketari, aplikazio-araudiari eta erreferentzia bibliografikoei buruzko alderdi teoriko garrantzitsuenak zehaztuko dira.

3. Informazio iturriak

Honako alderdi hauek zehaztuko dira:

- Plana garatzeko erabiliko diren Pasaiako Udalaren informazio-teknologiak eta datu-baseak deskribatzea.
- Plana garatzeko funtsezko datuak identifikatzea.
- Datuen fidagarritasuna aztertzea.

4. Sarearen diagnostikoa

Hornidura-sistemaren egungo egoeraren diagnostiko osoa egin beharko da, bai altan bai bajan, HOPIaren abiapuntua zehazteko.

Hornidura-eskema egingo da, eta hainbat parametroren arabera sailkatu beharko dira aktiboak:

- Sareak: eraikuntza-data, materiala, diametroa, presio nominala... Horren ondorioz, udalerriko sarean zaharkitutako materialaren km-ak kuantifikatuko dira.
  Horrekin batera, mantentzeko zailak diren puntuak edo tarteak eta/edo puntu kritikoak identifikatuko dira.
- Deposituak: Tipologia, ontzi-kopurua, bolumenak, altuerak, eraikuntza-data, iragazgaiztea.
- Punpatzeak: Tipologia, emariak-altuera-potentzia, ponpa kopurua, eraikuntza-data.

5. Sarearen funtzionamenduaren azterketa

Gutxienez, eduki hauek izango ditu:

- Sareko adar edo tarte espezifiko bakoitzaren gehieneko, batez besteko eta gutxieneko emariak. Gehienezko edukieraren eta gehienezko emariaren arteko konparazioa.
- Sareko gehieneko eta gutxieneko abiadurak.
- Sareko adar eta/edo tarte espezifiko bakoitzeko presio maximoa, ertaina eta minimoa, funtzionamendu normalean eta ahari-kolpeen edo balbula-itxituren uneetan.

- Higadura/sedimentazioa izan dezaketen eremuak aztertzea.
- Hornidura-iturri alternatiboak aztertzea.
- Depositu bakoitzaren hornidura-bermearen azterketa.
- Deposituetako uraren kalitatearen analisia: egote-denbora eta hondar-kloro librea.
- Sare orokorreko, adar bakoitzeko eta depositu bakoitzeko emari-aldaketen analisia, astean zehar eta urtean zehar.
- Baja-sareko sektore bakoitzak hornitutako biztanleriaren azterketa.
- Altako eroanbideen kritikotasuna simulazio hidraulikoaren ereduan oinarrituta aztertzea, eroanbideetako akatsek dituzten ondorioak zehazteko.
- Eroanbideetako akatsen probabilitatea aztertzea, matxuren datu historikoetan, materialaren tipologian, zerbitzu-presioetan eta abarretan oinarrituta.

6. Ustiapenaren karakterizazioa

Goi-sarearen azterketa:

- Sareko konponketen eta gorabeheren historia.
- Dauden kontrol- eta sektorizazio-puntuak eta egin daitezkeen hobekuntzak definitzea.
- Depositu bakoitzaren sarrera-irteera emariak konparatzea eta kontsumoak aztertzea.
- Ponpaketen funtzionamendu-orduen eta horien energia-gastuaren azterketa (kW/m³ + Kostua/m³).
- Ihesak kontrolatzeko probak egitea eta emaitzak jakinaraztea:
  - Ponpaketak gelditzea eta presio-jaitsierak neurtzea.
  - Deposituetako ontzien irteerak ixtea eta maila murrizteko kontrola egitea.

Behe-sarearen azterketa:

- Hornitutako biztanleriaren + hornitutako industria-eremuen ratioen azterketa, biltegi bakoitzeko kontsumoak, emari-aldaketen justifikazioa.
- Gaueko gutxieneko emarien kontsumoak aztertzea eta justifikatzea.

Aurrekoari sistemaren analisi bat gehituko zaio, AMIA metodologiaren bidez (hau da, ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak), hornidura-sistemaren egoera ebaluatzeko balizko kontingentziei dagokienez.

7. Kudeaketa adierazleen kalkulua

HOPIan erabiliko diren kudeaketa-adierazleak (KPI, ingelesezko siglak) kalkulatuko dira, baita sektore bakoitzaren eta sistema osoaren Zerbitzu Prestazioaren Indizeak ere.

Arreta berezia jarriko da ihesen ebaluazio xehatua betetzeko indizeak definitzeko, 3/2023 Errege Dekretuaren X. eranskinean jasotakoaren arabera:

- Erregistratu gabeko uraren indizea (ANR) kalkulatzea.
- Sarearen efizientzia-indizea kalkulatzea.
- Egiturazko ihesen indizea (IFE) kalkulatzea.
- ANR indizea kalkulatzea sareko kilometroko eta eguneko.

8. Indizeen azterketa

Sistema bera eta sistema osatzen duten elementu guztiak (eroapen-tarteak, deposituak, ponpaketak...) lortutako indizeen arabera sailkatuko dira, benchmarking bidezko analisi konparatiboa egingo da, kudeaketa- eta arrisku-mapak sortuko dira, eta hobekuntza-puntuak identifikatuko dira sisteman, eragiketa-mailan (epe motza, normalean, urtebete), maila taktikoan (epe ertaina, normalean 2 eta 5 urte artekoa) eta maila estrategikoan (epe luzea, 5 urtetik gorakoa).

9. Helburuak eta estrategiak

Epe labur, ertain eta luzera lortu beharreko helburuak definitu beharko dira, kudeaketa-adierazleetan oinarrituta, bai sektoreei dagokienez, bai sistema hidraulikoari eta horiek lortzeko erabili beharreko estrategiei dagokienez. Horretarako, helburuak, aplikazio-eremua eta egin beharreko ekintza zehatzen definizioa ezarri beharko dira, proposatutako helburuak lortzeko.

10. Hobetzeko proposamenak

Zehatz-mehatz ez bada ere, honako hauek jaso beharko dituzte:

- Beharrezko berritze eta birgaitzeen proposamena.
- Kontrol-elementuak instalatzeko proposamena.
- Sarea saretzeko aukera aztertzea.
- Funtzionamendu-ordutegiaren kostuak/tarifa energetikoak murrizteko aukera aztertzea.
- Hornidura bermatzeko aukerak aztertzea.

Proposamen horiek jarduera bakoitzaren kostua (ratiokako aurrekontua) eta irtenbide eskematikoa zehaztuta geratzeko moduan garatu beharko dira, eta, hala badagokio, preskripzio tekniko partikularren agiria idatzita. Halaber, Udalak planoak eskatu ahal izango ditu.

11. Inbertsio plana

Inbertsio-plana definituko da, urteko inbertsio-premia ekonomikoak ezarriz, eta Azpiegituren Balio Indizea (ABI) eta haren denbora-bilakaera zehaztuko dira.

12. Monitorizazioa eta jarraipena

Aktiboak Kudeatzeko Plana monitorizatzeko eta haren jarraipena egiteko irizpideak ezarriko dira, eta honako hauek zehaztu beharko dira: KPIak eguneratzeko maiztasuna, helburuen berrikuspena, helburuak, operazio-mailan (epe laburra), taktikoan (epe ertaina) eta estrategikoan (epe luzea).

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

5.1.- Langileak eta kualifikazioa

Baldintza-agiri honetan ezarritako zereginak garatzeko, beharrezkoa da enpresa kontratistak lan horiek egiteko gaitasun nahikoa duten giza baliabideak izatea. Zehazki,

kontratistak proiektu-talde bat aurkeztuko du, proiektuaren arduradunak gainbegiratuta, honako titulazio eta esperientzia hauekin:

- Deskribatutako lanei erantzuteko behar adina kualifikazio eta arduraldi egokiko teknikarik osatuko dute proiektu-taldea, baldintza-agiri honetan dokumentatutako neurriaren arabera. Talde hori arduratuko da kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak diren prozesu eta lan guztiak egiteaz.
- Proiektu-arduradunak goi-mailako ingeniari titulua, ingeniaritza zibileko gradua, industria-ingeniaritzako titulua edo baliokidea izan beharko du. Era berean, gutxienez lau (4) urteko esperientzia izan beharko du 17.000 biztanleko herri edo populazio-multzoetarako edateko uraren hornidura-sareak sektorizatzeko lanen proiektuen zuzendaritzetan eta/edo obra-zuzendaritzetan.

Langileren batek edozein arrazoirengatik aste bat (1) baino gehiagoko baja edo absentzia hartzen badu, kontratistak, hasierako astearen ondoren, berehala ordeztu beharko ditu kualifikazio bereko edo antzeko kualifikazioko langileekin, eta baldintza-agiri honetako agindu guztiak bete beharko ditu absentziak edo bajak irauten duen bitartean.

5.2. - Baliabide materialak

Kontratistak une oro eduki beharko ditu baldintza-agiri honen xedea behar bezala betetzeko antolaketa, egitura, baliabide eta bitarteko propio egokiak, kontratua indarrean dagoen bitartean bitarteko horiek eskuragarri izan ditzan. Baliabide horiek erabiltzeak sortzen dituen gastu guztiak kontratistak hartuko ditu bere gain.

5. ETIKETA BERDEA ETA ETIKETA DIGITALA

Jarduketa horrek zuzenean laguntzen du trantsizio ekologikoan. Zehazki, Berreskuratze eta Erresilientzia Erregelamenduaren VI. eranskineko 041bis etiketan sartzen da, eta % 40ko ekarpena egiten die helburu klimatikoei eta % 100ekoa ingurumen-helburuei. Hala ere, ez dio zuzenean laguntzen trantsizio digitalari.

6. INGURUMENARI KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO PRINTZIPIOA (DNSH)

Kontratistak eta balizko azpikontratistek bermatuko dute «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa errespetatuko dela. Printzipio hori exijitzen da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021/241 (EB) ERREGELAMENDUAn, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. Artikuluan. Erregelamendu horren bidez, inbertsio jasangarriak errazteko esparrua ezartzen da, eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen da. Zehazki, Batzordearen 2021/C 58/01 Gida Teknikoaren Komunikazioa beteko da, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioaren aplikazioari buruzkoa.

Horretarako, erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko dute, 6 ingurumen-helburuei «kalte esanguratsurik ez eragiteko» (DNSH) printzipioa betetzeari buruzkoa, 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluaren arabera.

Arreta berezia jarri beharko dute irizpide hau betetzeko:

Erabilitako ekipoek ez dituzte 2011/65/EB Zuzentarauaren II. eranskinean zerrendatutako substantzia mugatuak izango, salbu eta material homogeneoen pisuaren kontzentrazio-balioek ez badituzte gainditzen eranskin horretan zerrendatutakoak.

Kontratistak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

II. Ekipoen CE marka.

III. Halakorik ezean, egiaztatu beharreko araua betetzen dela egiaztatzeko fitxa teknikoa.

7. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARRAK

Erakunde kontratistak eta azpikontratistek, hala badagokie, honako honetan ezarritako informazio- eta publizitate-betebeharrak bete beharko dituzte: HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzen duena, 9. artikulua (komunikazioa).

Zehazki, betebehar hauek izango dituzte:

a) Lan-dokumentuetan, txostenetan eta kontratuaren xederako beharrezkoak diren jarduketetan erabiltzen den edozein euskarritan, behar bezala eta modu nabarmenean erakutsi beharko da EBren ikurra, "Europar Batasunak finantzatua - NextGeneratioEU" dioen finantzaketa-adierazpen egokiarekin, PRTRren logoarekin batera, eta goiburuan zein garapen-gorputzean honako erreferentzia hau jasoko du: "Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU".

b) Informazio- eta komunikazio-neurrietan, edozein komunikazio-bide erabiltzen dela ere, aipatu beharko da inbertsioa Europar Batasunak finantzatzen duela NextGenerationEU Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez (inbertsioaren finantza-tresna da C5.I1.). Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren «Azpiegituren arazketa-, saneamendu-, efizientzia-, aurrezpen-, berrerabilpen- eta segurtasun-jarduketak gauzatzea».

c) Kontratazio-organoak, kontratua gauzatzen den bitartean, bitarteko edo formatu bakoitzean behar den edukiari buruzko argibideak emango ditu.

d) Hala dagokionean, erantzukizunetik salbuesteko klausula hau adieraziko da: «Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU". Hala ere, adierazitako ikuspuntuak eta iritziak egileenak baino ez dira, eta ez dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunarenak edo Europako Batzordearenak. Ez Europar Batasuna ez Europako Batzordea ezin dira horien arduraduntzat hartu».

8. HIZKUNTZA-BETEBEHARRAK

Kontratu hau gauzatzeko entregatu beharko diren lanak bi hizkuntzetan aurkeztu beharko dira (datu-bilketaren emaitzak jasotzen dituen txostena, idatzizko edo ikus-entzunezko beste edozein dokumentu...). Hau da, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak emango dira, eta, hala badagokio, esleipendunak ordainduko ditu itzulpen-kostuak.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legearen eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edo horiek ordezten dituzten arauen babesean, honako hau hartuko da kontuan: - Dokumentu, publizitate, irudi edo materialetan ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duten irudirik ere. Halaber, emakumeen irudiari dagokionez, balio hauek sustatuko dira: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna, eta rolen eta genero identitateen aniztasuna.